

Donostia, 2016ko urriaren 21a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA DBUSEKO IRAGARKIAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Lehenago abuztuan, Aste Nagusiko zezenketak zirela eta, haiei buruzko informazioa ematen zuten irudiak ikusi ahal izan ditugu hiriko autobusetan. Horrek esan nahi du erabiltzaileek, eta horien artean hurrek, zezenketei buruzko irudiak ikusi behar izan dituztela.

Haurren Eskubideen Aldarrikapenak bigarren puntuan ezartzen du legearen zein beste bitarteko batzuen bidez haurren garapen fisiko, mental, moral, espiritual eta sozial osasuntsua eta normala bermatuko dela, haurren interesei lehentasuna emanez. Iruditzen zaigu Dbus bezalako garraio bide publiko batean animaliei tratu txarrak ematen zaizkien ekitaldi baten publizitatea egiteak Adierazpenaren zerizanari erasotzen diola.

Funtsezkoa da Udalak lan egitea adingabeengan errespetu balioak sustatzeko ere, ez soilik beste pertsonetikiko errespetua, baita ere, animaliekikoa, era horretara baztertuz munduaren ikuspegi androzentrista, guztia bere zerbitzura dagoela irizten diona.

Era berean, gogorarazi nahi dugu Animalien Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak 3. artikuluan hau ezartzen duela: *“a) Animaliei ezin zaizkie tratu txarrak eta krudelak eragin. b) Animalia bat hil behar bada, bat-bateko heriotza, minik gabea eta estutasunik eragingo ez diona izango da.”* Aldarrikapenarekin bat, animaliak babesten aurrera egiten duten hainbat lege eta arau garatu dira.

Hori horrela, uste dugu, garraio bide publiko batean zezenketen irudiak botatzen direnean, haurrak animaliekiko errespetu-balioetan garatzearen defentsaren aurka egiten dela, batetik, eta, bestetik, animalien eskubideei buruzko arauen kontra egiten dela, eta, beraz, Udalak ezin duela zerikusirik ez izan bi gai horiekin.

Hori dela-eta, hauxe da aurkezten dugun



KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio eska diezaiola DBUS autobusetako publizitatea kudeatzen duen enpresari ez ditzala bota animaliei tratu txarrak ematen zaizkien eta/edo giza eskubideak urratzen dituzten egoeren irudiak.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.